

BALIO PROPOSAMENA

Oreka Zalditegi Terapeutikoa zaldiek lagundutako jarduerak eskaintzen ditu, baita hezkuntza eta terapia ere, naturan barneraturik. Ateak zabalik daude interesatuta agertzen den edonori. Gure profesionalen eskutik hezkuntza emozionaleko tailerrak eta kurtsuak eskaintzen ditugu haur, nerabe zein helduei zuzendua. Jarduerak bakarkakoak edo taldekoak izan daitezke. Modu puntual batean eskaini ditzakegu egoeraren arabera edota zenbaitetan jarraipen bat egon daiteke denboran zehar. Gure zerbitzua pertsonalizatua da.

Coaching, Gestalt terapia eta konstelazioak ere eskaintzen ditugu, beti ere zaldiek lagunduta. Prestakuntza kurtsuak ere antolatzen ditugu zaldien mundua ezagutu nahi duen edonorentzat, ulertzeko nola lagundu diezaioketen pertsonen beren bizitzak hobetzen. Horretaz gain, zaldientzat ostatua ere eskaintzen dugu samaldan egon daitezen askatasunean.



Gure elkartearen **helburuak** honakoak dira:

- Garapen emozionala lantzea.
- Pertsonen eta gizartearen ongizatean laguntzea.
- Pertsonak eta naturaren arteko harremana indartzea.

Oreka Zalditegi Terapeutikoaren ekintzak eta proiektuak garapen emozionalarekin, ingurugiroarekin, landa eremuarekin zein heziketarekin konpromisoa duen banakako pertsonen, taldeen eta erakundeen zuzenduta daude. Gure helburua, jarduera esperientzialak landuz eta emozioetan oinarrituz parte hartzaileek pertsona eta talde bezala garatzeko baliabideak eskuratzea da.

Zertan datza gure lanak?

Zaldiekin lagundutako terapiak hemen eta orain bizitzen laguntzen du, zaldiekin interakzioan zerbait benetako esperientziatuz eta beharrezkoak ez diren pentsamenduak bertan behera utzi. Sentitzen laguntzen dute zaldiek.

Animaliekin eta naturarekin harremanetan egotea, bere horretan jada bada terapeutikoa. Hainbat ikerketek baieztatu dute zaldia dela planetako animalia guztietatik, pertsonengan efektu lasaigarri handiena duena eta horregatik dira horren onuragarriak eurekin egiten diren terapiak.

Gizakiaren ezbeharrak handiena momentuan sentitzen ari denaz ohartzeko gaitasuna galtzea izan da, gure benetako beharrak zein diren ohartzeko gaitasuna preseski. Integraziorako lehen etapa pertsona bakoitza bere buruarekin harremanetan jartzean da, sentitzen eta nahi duenez kontziente eginez. Horretan lagundu dezakete zaldiek.

Naturaz inguraturik burutzen dira jarduera guztiak, honek izugarri laguntzen baitu emozio horiekin konektatzen, orainaldia besarkatuz inongo interferentziarik gabe. Erraz ahazten dira eguneroko errutina eta kezkek, inguruari eta orainaldiari arreta berezia jarritz. Pertsona zaldiaren erreakzioei adi dago eta erreakzio horiei erantzuteko ez zaizkio baliagarriak egunero erabiltzen dituen moduak. Honek erakusten digu badagoela bizitza beste modu batera ikusi, egin, sentitu eta ulertzeko eta guk aldaketa hori lortu dezakegula.

Ikerketa zientifiko ugari adierazi dute pertsonekin erlazionatzeko animaliarik onenetakoak direla zaldia duten efektu lasaigarriagatik. Zaldia euren ingurunea hautematen dabilta momentu oro, beren biziraupena horretan datza. Horregatik zaldia ispilu lanak egiten ditu eta beraz, gu lasai ez bagaude zaldia ere ez da egongo. Pertzepziorako gaitasun honek bihurtzen ditu horren eraginkor terapietan, gure benetako egoera emozionala zein den jakin baitezakegu beraien bidez.



Gizakiok gure burua engainatzeko gaitasun handia dugu eta askotan ahazten zaigun zein garen ere. Zaldia hautematen duena erakutsiko du. Zaldia gure gorputzeko hizkuntza irakurriko du eta horren arabera komunikatuko da.

